


# Zure kamisetaren bidaia

## Erakusketaren

### GAINEKO GOGOETAK

# 2024



**MADRE CORAJE**  
De tu compromiso nace la esperanza

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030



C/ Sangüesa 38. La Milagrosa. Pamplona - 31005 Navarra | T. 948 233 289 | [navarra@madrecoraje.org](mailto:navarra@madrecoraje.org)

[www.madrecoraje.org](http://www.madrecoraje.org)

Síguenos:

 [www.facebook.com/asociacionmadrecoraje/](http://www.facebook.com/asociacionmadrecoraje/)

 [@MCorajeONGD](https://twitter.com/MCorajeONGD)

 [@madrecorajeongd](https://www.instagram.com/madrecorajeongd)

 [www.youtube.com/user/madre0coraje](http://www.youtube.com/user/madre0coraje)

Diseño y maquetación:

basati | [maitetxumdiez@gmail.com](mailto:maitetxumdiez@gmail.com)

## Agiri honetan jaso dira “Zure kamisetaren bidaiaria” erakusketa ikusi dutenek idatzitako gogoetak.

“Arropa mimo handiz zaintzea, ez alferrik erabiltzea.”

“Ea sentimendu horiek jende gehiagorengana iristen diren eta benetan kezkatzen garen sufritzen duten pertsonengatik. Eskerrik asko zuen lanagatik!”

“Eman ezezkoa modan joateari eta zure armairua hilero aldatzeari: bilatu zure estiloa arropa jasangarriekin, iraunkorrekin eta hurbilekoekin, eta salbatu planeta!”

“Eskerrik asko zuen salaketagatik, kontzientziak astintzeagatik, korrontearen aurka borrokatzeagatik.”

“Erosi aurretik, pentsatu.”

“Batuetan arropa gehiegi erosten dut eta gero modatik pasatzen da. Aurrerantzean, ez dut arropa gehiegi erosiko.”

“Berrerabili gehiago, sortzen duzun guztiak axola baitu.”

“Hobe da erabiltzen ez dugun arropa birziklatzea edo berrerabiltzea.”

“Lotsatu egiten naiz hainbeste kutsatzeaz, nire armairua beharrezkoak ez diren jantziekin bete nahiak bultzaturik.”

“Kontzientziak sortzea, ez kontsumitzeko eta modarekin bat ez bizitzeko. Natura gehiago bisitatu.”

“Ez da beharrezkoa hainbeste arropa erostea. Guk beti jaso dugu haurrentzako arropa, eta beste familia batzuei pasatu diegu.”

“Gutako bakoitzak zerbait egin dezakegu eta egin behar dugu. Gure kontsumo-hautuen bidez eta presio soziala eginez.”

“Ondorioa: gutxiago kontsumitzea.”

“Zer balio du gehiago, jantzi bat oso prezio onean aurkitzeak edo jantzi hori egin zuen pertsonaren bizitzak?”

“Ez da hainbeste arropa erosi behar.”

“Ez erosi fast fashionik!”

“Erosi gutxiago.”

“Hainbeste kontsumitzeari uzten ez badciogu, planeta suntsituko dugu.”

“Gai horri buruz gehiago hausnartu eta maizago aritu beharko genuke. Oso lagungarria da datuak ezagutzea. Zorionak lanagatik!”

“Hondagarria da denetarik erostea, mundu zoroa!”

“Herri-jakinduria: “merkea garesti ateratzen da”.”

“Gure arroparen inpaktua murrizteko, erabil dezagun bigarren eskuko arropa, birzikla dezagun, konpondu dezagun arropa bota ordez.”

“Jakin dezagun ingurumena zaintzen eta jakin dezagun gure kontsumoaren bidez koherente izaten, lagundu dezagun eta har dezagun kontzientzia eskulana jartzen dutenekin.”



“Eguneroko esposizio hau hausnartzea eta gogoratzea % 100ean konprometitzeko.”

“Konpromisoa daukat neure buruarekin, egunetik egunera gizaki hobea izateko.”

“Beti gustatu izan zaizkit arropa eta moda, eta askotan erosi izan dut merkeena, era konpultsiboan. Erakusketa honek erosketa mota horren ondorioak erakutsi dizkit, zer dagoen jantzi baten atzean, haren testuingurua eta historia.”

“Erosi aurretik, pentsatu beharra dago: egiazki behar ote dut?”

“Gutxiago erosi behar dut eta benetan behar ote dudan pentsatu.”

“Garrantzitsua da gazteak kontzientziaztea arropa berrerabiltzeko eta birziklatzeko.”

“Berrerabiltzea-birzikulatzea garrantzitsua da.”

“Onena, bigarren aukera.”

“Erosten duguna, erabiliko dugu?”

“Kontsumoari buruz hausnartzea.”

“Kontsumitzaile garen aldetik, kontzienteago izan behar dugu zer dakarren gure kontsumo erritmoak. Jantzien bizitza ahalik eta gehien luzatzea.”

“Hain da erraza gure aletxoak ekartzea, pena izanen litzateke aukera alferrik galtzea. Be green my friend.”

“Ekintza txikietatik eragin behar zaio, zure kontua ez dela sentitu beharrean. Modak oso azkar pasatzen dira, ez daitezela modak zure erosketa gidariak izan.”

“Ikasi dut gure topek egin ditzaketan ibilbide guztia, baita bigarren bizitza bat ematea zein garrantzitsua den ere.”

“Arropa zaindu behar dugu, bai tratuan, bai garbiketan, gehiago iraun dezan eta kontsumismoa saihesteko.”

“Arropa erosterakoan, prezioaz haratago dauden gauza asko hartu behar ditugu kontuan. Babestu tokikoa, babestu planeta.”

“Kontsekunteagoa izate erosten dudanarekin eta erosten dudan tokiarekin Gutxienez egunbete itxaron, nire ustez behar dudan arropa egiazki behar ote dudan ikusteko edo huraxe gabe bizi ote naitekeen ikusteko.”

“Gutxiago erosi.”

“Arropa 5 €-an ere erosten dugu. Zer ordainduko ote zaie horretatik arropa egiten dutenei? Hortxe utziko dut...”

Gutxiago erosiko dut eta tokiko dendetan.”

“Bada garaia ehungintzaren kutsadura ikusarazteko. Gure “tentel” jarrera lagungarria zaie 4ri milioidun bihurtzeko, milioika pertsona hondoratzen ditugun bitartean, geure burua barne. Horrela segiz gero, itota hilko gara, egarrituta, baina modaz jantzita, eta gutako lau kolkoa beteta; tira, ez, dirua ere ez baita gainean eramaten; zero askorekin bankuko pantailan!”

“Bisita asko gustatu zait.”

“Gutxiago erosi eta bertako jantziak kontsumitu.”

“GJHak garrantzitsuak dira, birziklatzearen eta ingurumena zaintzearen garrantzia erakusten digutelako, eta belaunaldi berriei mundu hobea nola utzi erakusten digutelako. Zure ustez, merezi du kutsatzea eta mundua kaltetzea?”

“Egunero entzuten dut: Erosteak besteei bizitzen laguntzen die. Bidaiatzeak aberastu eta dibertitu egiten gaitu, eta bizitzen laguntzen digu. Oporrak, Filipinetan atseden hartzeko. Hainbeste kontsumo-mezu daude, eta azkenean, haietako batean erori eta irizpiderik gabe erabakitzen dugu.”

“Kontsumoaren botereak ez du mugarik, desagerraraziko gaitu. Kontsumoa gure bizi-zentzua da.”

“Gutxiago erosiko dut eta erabiltzen ez dudan arropa eman ginen dut.”

“Ez da hainbeste arropa behar, eta arropa egiten duten langileengan pentsatu behar da, materialak zein toxikoak diren, eta bidezko eta tokiko kontsumoan lagundu behar da.”

“Niri alpakena gustatu zait eta arropak asko kutsatzen duela jakitea, ez nekien.”

“Ez dut hainbeste arropa kontsumituko.”

“Gutxiago baina garestiago erosiko dut.”

“Gutxiago erosi.”


“Arazoari aurre egiteko modurik onena da enpresak kondentatzea eta bigarren eskukoa erostea.”

“Gehiago berrerabiliko dut erabiliko ez dudana arropa, eta erabiltzen ez dudana arropa behar duenari emanen diot.”

“Gutxiago erosi.”

“Erakusketa errealitate hutsa da, soberako arropa erosten dugu, eta ez dugu halakorik behar. Txikitatik kontzientziatu beharko gintuzkete.”

“Arropa gutxiago erostea.”



**MADRE CORAJE**

De tu compromiso nace la esperanza

C/ Sangüesa 38. La Milagrosa. Pamplona  
31005 Navarra | T. 948 233 289 | [navarra@madrecoraje.org](mailto:navarra@madrecoraje.org)

**[www.madrecoraje.org](http://www.madrecoraje.org)**